



## **BOLUNTARIOTZA PROIEKTUAK OINARRIZKO INFORMAZIOA**

### **Boluntariotza proiektuen helburua**

- Hirugarren Munduko pobretuen eta baztertuenganako irekitasuna ahalbideratzea. Eta horretarako, boluntariotza proiektu batean parte hartuz hango jendearekin bizitzea eta haien bizimodua partekatzea.

### **Baldintzak**

- Adina: 21 urtetik gora, eta zenbait kasutan 25etik gora.
- Gizarte sentiberatasuna, kristau bizipena.
- Aurretik zenbait esperientzia bizi izana: aisialdiko taldeak, boluntariotza, laguntza-gelak..., katekesia, kristau talde bateko partaidetza... Horrelako edo antzeko esperientziak beharrezkoak dira, proiektuetan bizi eta egingo dena, eta han aurkituko dena, nondik nora doan eta zergatik egiten den ulertzeko.
- Taldearen eta tokiko elkartearen elkarre- eta otoitz-bizitzan parte hartzeko prest izatea.

### **Formazioa**

- Proiektuei begira informazioa jasotzeko eta formazioa bideratzeko zenbait topaketetan parte hartu beharko da.
- Boluntario talde bakoitzak egitasmo labur batean islatuko ditu bizitzera doan esperientzian lortu nahi dituen helburuak.

### **Finantzaketa**

- Boluntarioaren kontu izango dira bidaiak eta egonaldiaren zati bat.
- Proyde-Proegaren kontu egonaldiaren beste zatia, formazioa eta aseguruak.

### **Ebaluazioa**

- Proiektuaren bukaeran parte hartu duen taldearen eta boluntario bakoitzaren ebaluazioa eskatuko da.

### **Ondorengo konpromisoa**

- Ikastetxeetako Proyde-Proegaren sentsibilizazio-kanpainetan parte hartzera gonbidatuak izango dira boluntarioak.